



Buru gaineko LEDa piztu zidan Massimo Banzi italiarrak, [Arduino](#) txartelaren garatzaileetako batek, botatako karaktere kateak:

[Hardware-a kultura zati bat bezalakoia bihurtu da partekatu eta bere gain eraiki dezakezuna, kantu edo poema bat bezala](#)

Eta gogoetak zeinetatik tira egiteko (kobrezko) haririk baduelakoan, sarrera analogikoari ematen diot segida.

Creative commons lizentzietaz ari zen Banzi, kantu edo poema bat babestu daitekeen erraminta horrekin berarekin babestu daitekeela hardware pusketa bat. Irekitasunaz ari zen italiarra, agian, koblakariak poema epikoak entzun eta berrinterpretatzen zituzten bezala egin dezakagula hardware-arekin orain, gurera moldatu eta berriz zabaldu. Baina moldatze eta zabaltze horiek ez dira hitzak eta lira-akordeak, bitarteko ekonomikoak behar dira hardware-an proposamen berriak egiteko edo eraldatzeko. Emandakoa transformatzen du kultura oso batek ez soilik emandakoa erabili.

Izan ere bi modu daude *maker* komunitatea bizitzeko: ekonomikoki eraldatzailea edo *hobby* soila. Lehenengoak produkziarako ondasun bezala ulertzen du hardware-a. Bigarrenak kontsumorako ondasuna. Lehenengo hurbilpenak enpresak sortzen ditu proposamen berriekin eta bigarrenak liburutegietako apalak betetzen ditu Kickstarter bitartez finantziatutako azkenengo Do it Yourself (DIY) txartel elektronikoekin. Badirudi ez dagoela bien arteko continuumik.

Software-arekin badira tarteko esperientzia ezberdinak, baina nolabait produkzio eskala txikiagoa duelako izan daiteke: gutxiago kostatzen da (denbora, bitarteko eta pertsona kopuruan) programa bateko kode lerro bat aldatzea eta eguneraketa bidez zabaltzea, txartel elektroniko bateko txip bat aldatu eta aldaketa berrinstalatzea baino. Horrela, helburu ekonomikotik eta ludikotik ekidistante badaude software proiektu banatu milaka, ezagunena Linux.

Hardware-aren kultura bat nahiko balitz software-aren kulturaren parekoa, kopia eta zabalpen kostuak txikitu beharko genituzke eta hori da industria, 2. sektore klasikoa, behin eta berriz produktibitatearen bitartez egiten saiatzen dena. Pentsonalki gai interesgarriegiegiztat ez daukadana. Bitartean, hardware-aren kopia kostua zero diren mundu birtualak eraiki ditzakegu [Minecraft](#) bezalakoak. Birtuala izan daiteke hardware kulturaren etorkizun iradokitzaileena, gogorra bigun bilakatzearen alkimiarena.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)